


Ermutik mendietan zehar



Mendizaleek emandako diapositibekin gozatu egin zuten.

Artarrai mendi taldeak, bere aurtengo irteeren aurkezpenean, ermuar guztiak euren ekintzetan parte hartzera gonbidatu zituen. Mendi ibilbide guztiak aritu gabeko edozeinek egiteko modukoak zirela azpimarratu zuten.

Artarrai M. T. ermuarrak, udaletxeko atikoan, aurtengo asmoen berri eman zuen. Amaieran, taldekide batzuekin solasean egon ginen.

-Artarrai M. T. ermuarrak aspaldi denik ezagutzen dugu. Noiz hasi zen taldea funtzionatzen?

-Lehenengo irteerak 1972. urtekoak dira, baina lokala erre egin zen. Hiru urtez geldirik egon ondoren, jendea berriz hasi zen batzen, orduko lokala 1983.eko uholdeek erabiltzezina utzi zuten arte. 1985 urtean hirugarren aldiz ekin genion, eta gaur arte.

-Zenbat bazkide zarete?

-140 pertsona inguru. Iaz aurreko urteetan baino jende gehiago apuntatu zen, eta igoten joango dela pentsatzen

dugu. Gero eta jende gehiago animatzen ari da, gazteak batipat.

-Bazkide egiteak, ze abantaila dakar?

-Urte osoko kuota 2.000 pztakoa da. Gero irteerak bazkideentzat, bazkideak ez direnentzat baino merkeagoak dira. Gainera mendiko federazioak aseguru kontuetan eskaintzen dituen abantailak baliatzeko, mendi talde bateko bazkide izatea ezinbestekoa da.

"Mendian, ondoan dituzunekin ordu eta gauza asko konpartitzen dira"

-Irteerak nork pentsatzen ditu?

-Ba, direktibako kideen artean. Talde legalizatu bezala, lehendakari, idazkari, diruzain eta bokalez osatutako batzorde bat dago eta nora joan beraiek aukeratzen dute.

-Zuen irteerek, zer nolako erantzuna daukate?

-Igandeetako irteeretan jende fijo batzen bada ere, pertsona kopuru handiena asteburu luze edo zubietan egoten da. Askori egunean bertan joan eta etorri baino, mendian hiru edo lau egunetan disfrutatzea gehiago gustatzen zaio.

-Noizean behineko hoiak mendian ibiltzen ohituak dira?

-Denak ez. Askok eta asko zeozer ezberdina egitearren etortzen dira. Asteburuak herrian ezer gutxi eskaintzen digu gazteoi, zinera joan eta tabernarik taberna ibili, erre, edan, eta horrek asko nekutzen du. Mendira joanez gero, etengabeko soka horretatik irten zaren sentsazio zoragarriarekin etxeratzen zara.

Ez da ahaztu behar mendizalea izan ez arren, mendira joan daitekeela. Jendeak pentsatzen du gu eliteko jendea ga-

"Zenbaitek oraindik ez dute egunaren koloreen aldaketa dastatu"

rela. Egia da bakarrik joanez gero, ohituta ez dagoen batek baino erritmo azkarragoa dugula, baina taldean joanez gero taldeari egokitzen gatzazkio, besteei itxaroten ikasi dugu. Gertatu izan zaigu ibilbidea gogorregia suertatzea pertsona konkretu batzuentzat eta toki batetik aurrera ibilbide alternatibo bat egin behar.

-Zer ematen dizue mendiak?

-Besteak ezagutzeko beta. Taberna zulo batetan batzutan hitz egitea ez da erraza gertatzen, are gutxiago komunikatzea. Mendian, ondoan dituzunekin ordu eta gauza asko konpartitzen dira: otorduak, momentuko oztupoak, zure arazoak, tokietako edertasuna... Eta bestalde, egunez bizi izateko parada. Zenbaitek oraindik ez dute egunaren koloreen aldaketa dastatu.

Estibalitz Gonzalez